

Zu zara zu

Zuk, gutxi gora-behera, badakizu nor zaren,
nolakoa zaren.

Eta maite zaituztenek ere badakite.

Gutxi gora-behera.

Eta badakizu / badakite denboraren poderioz joan zarela aldatzen,
eta jarraituko duzula aldatzen, nola ez.

Oraindik ez dakizu dena zuri buruz.

Izan ere, noiz jakingo duzu dena? Inoiz ez...

Bukatu gabe gaude beti, poztekoa da...

Baina zu beti zara zu.

Zu zara zu.

Bukatu gabe eta osoa aldi berean.

Deskubritzen.

Batzuetan zalantzan.

Zure bidea egiten.

Zu zara zu.

Interesgarria.

Erakargarria.

Maitagarria.

Zu zara zu.

Bolada ona pasatzen duzunean

eta bolada txarra pasatzen duzunean.

Gazte askok bezala,

zure gorputzarekin tira-birak sentitzen dituzunean.

Eta konturatzen zarenean ez dela erreza umea izateari uztea,

zure garapena biziitzea,

kezka eta erronka berriak izatea,

interes berriei heltzea,

harremanetan sartzea,

erabakiak hartzea,

erabakiak aldatzea...

Edozein modutan ere, zu zara zu.

Osoa eta bukatu gabea.

Interesgarria.

Erakargarria.

Maitagarria.

Bilatu horretaz konturatu diren pertsonak, eta elkartu horiekin.

Eta besteez paso egin, noski (ahal duzun heinean).

Bideak konpainia onarekin urratzea atseginagoa da.

Ondo izan.